EKIPAMENDU HIDROGARBITZAILEA DUEN FURGONETA BAT ALOKAIRU BIDEZ HORNITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

AURKIBIDEA

1. XEDEA

2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA ETA LIZITAZIOAREN AURREKONTUA

3. KONTRATUAREN IRAUPENA

4. EKIPAMENDU HIDROGARBITZAILEA DUEN IBILGAILUAK DERRIGORREZ BETE BEHARREKO GUTXIENEKO BALDINTZA TEKNIKOAK

5. LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO ETA MANTENTZE LANAK NAHIZ KONPONKETAK EGITEKO ZERBITZUA

6. LANGILEAK PRESTATZEA

7. IBILGAILU HIDROGARBITZAILEAREN HARRERA

8. ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHAR DUEN DOKUMENTAZIOA

9. ARAUDIA

10. LIZITATZAILEEK ESKAINTZAN AURKEZTU BEHAR DUTEN DOKUMENTAZIOA

11. ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

12. INFORMAZIO OSAGARRIA

13. LIZITAZIOAREN PREZIOA KALKULATZEKO METODOA

14. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

EKIPAMENDU HIDROGARBITZAILEA DUTEN 2 FURGONETA ALOKAIRU BIDEZ HORNITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. LEHIAKETAREN HELBURUA

Lehiaketa honen helburua Eibarko udalerriko kale garbiketa zerbitzurako ekipamendu hidrogarbitzailea duen ibilgailu bat **alokairu bidez** hornitzea da, baita kontratuaren indarraldian eska daitezkeen prebentziozko mantentze lanak eta aldi horretan egin behar diren mantentze lan zuzentzaile guztiak egitea ere, ibilgailu bietan nahiz ekipamendu hidrogarbitzaileetan.

Ibilgailuen mantentze zuzentzailea Mankomunitatearen kontura izango da, betiere matxura makinen akatsen ondorio ez bada, edo matxura horiek erabiltzearekin zerikusirik ez duten arrazoien ondorio bada.

2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA ETA LIZITAZIOAREN AURREKONTUA

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua, bi ibilgailuak eta dagozkien mantentze lanak (prebentziozkoak zein zuzentzaileak) urte bateko (1) alokairu kontratuaren bidez hornitzeari dagokiona, 32.282,40 € da, BEZa BARNE; hain zuzen, bi ibilgailuen eta ekipamenduen alokairuari eta prebentziozko mantentzeari dagokion lizitazioaren gehieneko aurrekontua 28.967,40 € da, BEZa BARNE, eta bi ibilgailuen eta ekipamenduen mantentze zuzentzaileari dagokiona, 3.315,00 €, BEZa BARNE.

Ibilgailua eta bere prebentziozko mantentzea eta mantentze zuzentzailea alokairu bidez hornitzeko kontratuaren balio zenbatetsia, urte bateko eperako dela eta gehienez ere sei aldiz beste hilabete batez luzatu ahal izango dela kontuan hartua, 40.019,50 € da, BEZ KANPO; zenbateko horretan, 35.910,00 €, BEZ KANPO, ibilgailu bien eta ekipamendu hidrogarbitzaileen alokairuari eta prebentziozko mantentzeari dagokio, eta 4.109,50 €, BEZ KANPO, aipatu ibilgailuen eta ekipamendu hidrogarbitzaileen mantentze zuzentzaileari dagokio.

KONTRATUAREN EXEKUZIOA:

a) OROHARREKO GEHIENEKO KOPURUA: ALOKAIRUA ETA MANTENTZE PREBENTIBOA

Ibilgailua alokairuan emateko eta prebentziozko mantentze-lanak egiteko lizitazioaren oinarrizko aurrekontua ezin izango da izan hilean 2.413,95 €(BEZa BARNE) baino handiagoa (hilean 1.995,00 €, BEZik gabe).

b) MANTENTZE ZUZENTZAILEAREN UNITATEKO PREZIOAK

Mantentze zuzentzailea egiteko gehienezko aurrekontua 3.315,00 €/ urte da (BEZa barne).

Eskulanaren gehieneko prezio unitarioa: 78,65 euro orduko, BEZa BARNE.

Irteeraren prezio unitario maximoa: 88,33 euro, BEZa barne.

3. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratu honen iraupena urtebete izango da, 2025eko urriaren 1etik aurrera, eta gehienez ere 6 hilabeteko luzapenak egin ahal izango dira.

Kontratuaren iraupena 2 hilabete lehenago jakinaraziko zaio kontratistari, gehienezko epea amaitu gabe.

4. EKIPAMENDU HIDROGARBITZAILEA DUTEN IBILGAILUAK DERRIGORREZ BETE BEHARREKO GUTXIENEKO BALDINTZA TEKNIKOAK

Eskaintzek barnean hartu eta behar bezala justifikatu beharko dituzte derrigorrezkotzat jotzen diren ezaugarri guztiak; baldintza bi horietako bat bete ezean, eskaintza adjudikazio prozedura honetatik baztertzea erabakiko da.

4.1. Ibilgailuaren ezaugarriak Definizio orokorra

- 2 ardatzeko ibilgailu itxia
- BGM (baimendutako gehieneko masa): 3.500 kg
- Abiadura kaxa: eskuzkoa edo automatikoa
- Direkzio lagundua
- Klimatizagailua edo aire girotua
- Motorraren ezaugarri teknikoak zehaztu beharko dira: motorraren potentzia, zilindro bolumena eta abar, aplikatzen zaizkion Europako araudiak betez
- Kabina ibilgailuaren gainerako zatitik bereizita
- Segurtasun elementuak eduki beharko ditu, hala nola larrialdi triangelua, segurtasun uhalak, atzera martxako seinale akustikoa, botika kutxa, ibilgailu motaren araberako su-itzalgailua, altxagarriak eta abar.
- Ibilgailuak homologatuta egongo dira, IAT azterketa egina izan behar dute, eta asegurua indarrean.
- Elementu guztiak berrikusiko zaizkie eta, behar izanez gero, egindako berrikuspenei buruzko informazioa eskatuko da: datak, aurreikusitako hurrengo berrikuspenak eta abar.
- Ordezko gurpila eta krika hidraulikoa izango dituzte.
- Kontratua formalizatzean, esleipendunak hornigaiak erabiltzeko baldintza ezin hobeetan entregatu izanaren ziurtagiria aurkeztuko du, 7. klausulan agertzen den harrera-aktarekin batera.

4.2. Ekipamendu hidrogarbitzailearen ezaugarriak

- Presio handiko ponpa bat izango dute (gutxienez 200 bar), 21 litro/minutu inguruko ur emaria duena.
- Bai ur beroarekin, bai ur hotzarekin erabili ahal izango dira.
- Presio desberdinekin lan egiteko aukera izango dute.
- Gainpresioa, gehiegi betetzea eta gelditzea saihesteko segurtasun elementuak izango dituzte, segurtasun botoia eta abar.
- Segurtasun kaxa elektrikoa.
- Presio handiko ekipamenduari dagokion kontrol koadroa izango dute.
- 1.000 litro edo 750 litro inguruko ur depositua izango dute, baita dagokion karga sistema, olatuen aurkako elementua, sarrera- eta irteera-iragazkiak, ixteko giltzak (zehaztuko dira). Txasisari amarratua.
- 25 metroko tenkagailua eta pistola osoa.
- Tenperatura desberdinekin lan egiteko aukera izango dute.
- 24 litroko eta 500 barreko galdara. Galdarek presio erregulagailu bat, segurtasun balbulak, manometroa eta termostatoa izango dituzte. Gasen aterabidea.
- Ekipamendu bakoitzak presio handiko pistola bat izango du, lantza eta pitak (horien ezaugarriak zehaztuko dira) eta entxufe azkarrak dituena.

4.3. Kontratuko baldintzak

- Adjudikaziodunak baldintza agiri honetan deskribatutakoa betetzeko beharrezko baliabide materialak eduki beharko ditu.
- Oro har, makineria eta ekipamenduak BADESA SAko edo Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko langileek erabiliko dituzte, eta oso gutxitan sor daiteke makinak erabiltzeko azpikontratatutako langileei eskatu beharra.
- Makinak berak eragindako arrazoiak edo kontratistari egozteko moduko arrazoiak direla medio makina laneguneta erabili ezin bada, lanegun horiek inola ere ez dira fakturatuko.
- Makina/ibilgailuetako bat erabileraren ondorioz matxuratzen bada, 24 orduko epean konpondu beharko da; bestela, adjudikaziodunak ordezko ekipamendu hidrogarbitzaile bat jarriko du, matxuratutakoa konpondu arte. Alokairuan hartutako ibilgailu eta ekipamenduen gertatzen diren matxuren ondoriozko gastu guztiak lizitatzailearen kontura izango dira, lekualdatze kostuak barne.
- Hornitu beharreko ibilgailu eta ekipamenduek beti egoera onean egon beharko dute. Bestela, adjudikaziodunak makineriaren ordez egoera onean eta lanerako baldintza optimoetan dauden beste makina batzuk jarri beharko ditu, eta bere gain hartuko ditu ordezte horren ondoriozko kostuak.
- Adjudikaziodunaren kontura izango dira kontratuaren betetze akastunaren ondoriozko gastu guztiak.
- BADESA SAk edozein unetan eskatu ahal izango dio adjudikaziodunari lizitazioaren xede den makineriaren dokumentazio osoa, exijitu ahal zaizkion lege baldintzak, funtzionamendu baldintzak eta arauzko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.
- Enpresa adjudikaziodunak hornigaiak entregatu aurretik helarazi beharko dio BADESA SAri lizitazioaren xede diren ekipamenduen arauzko dokumentazio osoa. Dokumentazioa ez bada zuzena, entrega ez da baimenduko eta enpresa adjudikaziodunak ekipamenduaren ordez eguneratutako dokumentazioa duen eta BADESA SAk onartuko duen beste ekipo bat jarri beharko ditu.
- Eskainitako makineriak aplikatzekoa den legedian ezarritako baldintza guztiak beteko ditu eta, bereziki, legediak alokairuan jartzeko eskatzen dituen baimenak edukiko ditu.
- Mantentze lanak. Programatutako mantentze lan guztiak kontratuaren adjudikaziodunak egingo ditu.
- Ibilgailuek arrisku orotako asegurua izango dute; frankiziak ezingo du 500 € gainditu.

5. LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO ETA MANTENTZE LANAK NAHIZ KONPONKETAK EGITEKO ZERBITZUA

- Nahitaezko baldintza moduan, orduko tarifa, hau da, eskulanaren gehieneko prezioa, orduko, BEZa barne, zehaztu beharko da; hain zuzen ere, adjudikaziodunak laguntza teknikoaren zerbitzua emateko eta lizitazio honen xede den makina konpontzeko adskribatu duen lantegiak prezio horretan fakturatuko dizkio Mankomunitateari osagai mekanikoen, elektriko eta elektronikoen, hidraulikoen eta abarren konponketak, gerta daitezkeen matxuren ondorioz egin beharko direnak. Konponketa horien orduko gehieneko prezioa ezingo da 65 €/ordu (BEZa kanpo) baino handiagoa izan.
- Era berean, nahitaezko baldintza gisa, irtenaldiaren gehieneko prezioa zehaztuko da eta prezio hori ez da 73 €/irtenaldi (BEZa kanpo) baino handiagoa izango.
- Zerbitzurako gehieneko epea 48 egunekoa izango da.

6. LANGILEAK PRESTATZEA

- Ibilgailu hidrogarbitzaileak Mankomunitateko instalazioetan behin utzita, adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du bere kabuz emango diela prestakuntza ibilgailuak erabiltzeaz arduratuko diren langileei, ibilgailuen funtzionamendua maila guztietan ondo ikasteko beharrezkoak diren baliabideak jarrita.
- Prestakuntzak gutxienez lanaldi batekoa izango da, prozesu jarraituan, kokaleku berean. Prestakuntzaren ondoriozko gastu guztiak adjudikaziodunaren kontura izango dira. Prestakuntza hori Mankomunitateak bere beharren arabera ezarriko dituen egunetan eta orduetan emango da; gaueko ordutegian ere eska daiteke.
- Prestakuntza Eibarretik kanpo egin behar izanez gero, horregatik edo beste arrazoi batengatik sortutako gastu guztiak adjudikaziodunak ordainduko ditu.

7. IBILGAILU HIDROGARBITZAILEAREN HARRERA

Ibilgailuak entregatzean, ibilgailuen ikuskapen osoa egingo da (txasisa, ekipamendua eta abar); ibilgailuek izan ditzaketen edozein anomalia edo akats –funtzionamenduari eragiten ez badio– ikuskapenean jasota utziko da; halaber, ibilgailuen egoera alderdi biek sinatuko duten harrera aktan jasoko da.

Ibilgailua entregatzean, berdin jokatuko da.

8. ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHAR DUEN DOKUMENTAZIOA

Lehiaketaren adjudikaziodunak ondoko dokumentazioa entregatuko du:

- Adostasun Adierazpena eta CE marka: (1435/1992 Errege Dekretua)
- Ibilgailuaren fitxa tekniko originala eta kopia.
- Makinaren identifikazioa eta ezaugarriak adierazten dituen plakaren kopia.
- Fabrikatzaileak adieraziko ditu egin beharreko ikuskapenen eta mantentze lanen maiztasuna, baita kontrol parametroak ere, programatutako mantentze lan prebentibo guztietarako.
- Erabilerari eta mantentze lanei buruzko eskuliburu bi entregatuko dira.
- 2 giltza joko emango dira.

9. ARAUDIA

Ibilgailuek bide publikoan zirkulatzeari eta makinen segurtasunari buruzko indarreko araudia bete behar dute.

10. LIZITATZAILEEK ESKAINTZAN AURKEZTU BEHAR DUTEN DOKUMENTAZIOA

Administrazio klausulen agirian eskatzen den dokumentazioarekin batera, lizitatzaileek honako dokumentazio hau derrigorrez aurkeztu beharko dute, jarraian azaltzen diren gutxieneko baldintzak betez:

TXOSTEN TEKNIKOA: Zerbitzua emateko eskaintzen diren bitarteko materialak jasotzen dituen txosten teknikoa: Erabiliko diren ibilgailuen zerrenda (erreserbako ibilgailua barne), ibilgailuen zein ekipamenduen ezaugarri teknikoak zehaztuta eta zerbitzura adskribatutako bi ibilgailuen adinak adierazita.

10.1. FORMULAK APLIKATUZ EBALUATUKO DEN DOKUMENTAZIOA

"Eskaintza ekonomikoa eta formulen bidez ebaluatzeko dokumentazioa" gutun azalean edo fitxategi elektroniko bakarrean, lizitatzaileek aurkeztuko dituzte:

ESKAINTZA EKONOMIKOA

MANTENTZE ZUZENTZAILEAREN LAGUNTZA TEKNIKOKO ESKULANAREN ORDUKO TARIFA

IRTEERA-PREZIOA

IBILGAILUEN ADINA

11. ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

11.1. Formula bat aplikatuz esleitzen diren puntuak emateko irizpideak

Ondoko kontzeptuak direla eta, gehienez ere 100 puntu esleituko dira

11.1.1. Ibilgailuareen alokairuaren bidezko hornidurarен eta prebentziozko mantentze-zerbitzuaren prezioa (euro/hilabete-makina):

Kontzeptu hau dela eta, gehienez ere 80 puntu emango dira

Prezioaren araberako proposamen ekonomikoak honako puntuazio sistema honen arabera ebaluatuko dira:

Horniduraren preziotzat joko da ibilgailu hidrogarbitzailea alokairu bidez hornitzeagatik eta prebentziozko mantentze-zerbitzuagatik eskaintzen den prezioa (**€/hilabetea**), BEZa barne.

Prezioei dagozkien puntuazioak, alegia, onartu diren eskaintzetako prezioei dagozkienak, interpolazio linealaren bidez kalkulatuko dira, bi puntuek mugaturiko zuzenaren arabera: gehieneko puntuazioa edo P2 (Gehieneko beherapena, gehieneko puntuazioa jasotzen duena: 80 puntu) eta P1 edo gutxieneko puntuazioa. Puntuak esleitzeko, honela jokatuko da:

P2 – Prezio baxuenari dagokion puntua (Gehieneko beherapena, abzisen ardatzean); horri gehieneko puntuazioa esleituko zaio ordenatuen ardatzean (80 puntu).

P1 – Puntu hau, abzisen ardatzean, oinarrizko lizitazio prezioari dagokion beherapenari –hau da, zero beherapenari– dagokio. Ordenatuen ardatzeko balioa, dagozkion puntuetan, honako formula hau aplikatuz kalkulatzen da:

P1 = 80 x (1 – (3 x Bmax))
(Bmax = Gehieneko beherapena)

P1 kalkulatuz lortutako emaitza negatiboa bada, zero dela joko da.

Beherapena (Bi) oinarrizko lizitazio prezioaren eta "i" eskaintzako hornidura prezioaren (BEZa barne) arteko diferentzia da, zati oinarrizko lizitazio prezio; "i" horrek 1etik n-ra bitarteko balioak hartzen ditu, non "n" onartutako eskaintzen kopurua den.

Aurrerago aipatutako zuzena lortzeko, lehiaketan onartutako eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

11.1.2. Mantentze-lan zuzentzailearen eskulanaren prezioa (€/ orduko (BEZa barne). Kontzeptu horrengatik gehienez 5 puntu emango dira.

Baldintza-agirian adierazitako gehieneko prezioa gainditzen ez duen eskulan merkeenak aurkezten duen eskaintzari 5 puntu emango zaizkio.

Proposamenetan eskainitako gainerako eskaintza ekonomikoei honako kalkulu honen bidez kendutako puntuak esleituko zaizkie: eskaintza ekonomiko txikiena bider 5, eta emaitza hori i eskaintza ekonomikoaren zenbatekoaz zatituko da, non i 1 eta n balioak hartzen dituen, eta n baloraziorako onartutako eskaintza kopurua izango da.

i = (5 x eskaintza ekonomiko baxuena)/eskaintza ekonomikoari esleitutako puntuak i
Non i 1etik nra bitarteko balioak hartzen dituen, n eskaintza kopurua izanik

11.1.3. Irteerako €/ irteerako prezioa (BEZa barne).
Kontzeptu horrengatik gehienez 5 puntu emango dira.

Irteera-preziorik baxuenari, BEZa barne, 5 puntu emango zaizkio.

Eskaintzei dagozkien irteerako gainerako prezioei, BEZa barne, puntu hauek emango zaizkie: irteerako preziorik baxuena bider 5 eginda ateratzen den kalkulua eginda, emaitza hori i eskainitako prezioarekin zatitu behar da, non i 1 eta n arteko balioak hartzen dituen, n baloraziorako onartutako eskaintza kopurua izanik.

i eskaintzari esleitutako puntuak = (5 x gutxieneko irteerako prezioa/i irteerako prezioa)

Non i 1etik nra bitarteko balioak hartzen dituen, n baloraziorako onartutako eskaintza kopurua izanik.

Proposamen ekonomiko anormalak edo neurriz kanpokoak, oro har

i proposamen ekonomiko bat ausarkeriaz eta, ondorioz, proposamen ekonomiko anormal edo neurrigabea dela ulertzen da, i eskaintza honi dagokion i (Bi) baja lehiaketa honetan onartutako eskaintza guztien batez besteko Beherapena baino 15 portzentaje-puntu handiagoa denean, non i 1 eta n arteko balioak hartzen dituen eta n baloratu beharreko eskaintza kopurua onartzen den.

Baldin eta eskaintza batek edo batzuek a priori ausarkeriaz egiten badute baja, baina eskaintza aztertu ondoren ulertzen bada eskainitako prezioak proiektuaren betearazpenari egokitzen zaizkiola, behar bezala justifikatzen delako eskaintza horiek hasiera batean ausarkeriaz bajan egotea eragiten duen desbideratzea, proposamen horiek baliozkotzat hartuko dira eta puntuazioa berriro kalkulatuko da.

11.1.4. Ibilgailuen antzinatasuna:

Kontzeptu hau dela eta, gehienez ere 10 puntu emango dira.

Antzinatasunaren kontzeptua dela eta puntuak esleitzeko, lehiaketaren xede den zerbitzuari adskribatutako ibilgailu nagusiaren adina baino ez da kontuan hartuko, hain zuzen, txasisaren adina izango da kontuan. Puntuazio maximoa, hau da, 10 puntu, zerbitzua emateko ibilgailu nagusi berriak –hau da, zero hilabeteko antzinatasuna dutenak– adskribatu dituen lizitatzaileari emango zaio, eta ez zaie punturik esleituko lehiaketaren xede den zerbitzua emateko ibilgailu nagusi gisa 10 urteko antzinatasuna duten ibilgailuak proposatzen dituzten eskaintzei.

Zero eta 120 hilabete bitarteko adina duten ibilgailuak eskaini dituzten gainerako eskaintzei aurreko bi muturren (0 eta 120 hilabeteko antzinatasuna) eta zerbitzura bideratutako ibilgailuen batez besteko adinaren arteko interpolazio linealaren ondoriozko kalkuluaren araberako puntuak esleituko zaizkie.

120 hilabetetik gorako antzinatasunei zero puntu esleituko zaie.

Berdinketa ebazteko irizpideak

Eskaintza biren edo gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero, honela jokatuko da:

- Enpresa bakoitzeko plantillan desgaitasuna duten edo gizarte bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena konparatuko da; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio neurrien bidez langile gehien duena.
- Berdinketa ebatzi ezean, langileen artean aldi baterako kontratu gutxiago dituen enpresa lehenetsiko da.

- Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresaren alde ebatziko da. Hala ere ebazten ez bada, zozketaren bidez ebatziko da, baldin eta aurreko irizpideak aplikatzeak berdinketa hautsi ez badu.

12. INFORMAZIO OSAGARRIA

Formulen hautaketa justifikatzea

Eskaintzan adierazitako horniduraren prezioa dela eta

Puntuak interpolazio linealaren bidez P1 eta P2 puntuen artean banatzen dituen formula, non P1 oinarrizko lizitazio prezioaren antzekoa den eta P1=80x (1-(3xGehieneko beherapena)) legokiokeen; P2, aldiz, eskaintza ekonomikoena da, hau da, beherapen handiena proposatzen duena, 80,00 puntu jasoko dituena. Tarteko eskaintzei puntu bien arteko interpolazio lineala aplikatuz esleitzen zaizkie puntuak, abzisa ardatzean eskaintza bakoitzaren beherapenen balioak eta ordenatuen ardatzean eskaintza bakoitzari esleitu behar zaizkion puntuak jarrita. Hautatutako formulak

eskaintza baxuenari kontzeptu horrengatik eslei daitezkeen puntu guztiak esleitzen dizkio, eta lizitazio prezioari honako hauek: gehieneko puntuazioa (1–(3 x gehieneko beherapena)) faktoreaz biderkatuz lortutako puntuak, gehieneko beherapena bateko hainbestean adierazita. Ondorioz, lizitatzaile batek hornidura lizitazio prezioaren truke ematea eskaintzen badu, puntu gutxiago jasoko du ahalegina egin duten eta lizitazioarena baino nabarmen baxuagoa den prezio bat proposatzen duten eskaintzaileek baino. Gainera, lizitazio prezioa proposatzen duen eskaintza baten puntuazioa are txikiagoa izango da, eskaintza ekonomikoenaren beherapena kontuan hartuta; izan ere, nabarmen urrunduko da puntuak alderantzizko proportzionaltasunaren arauaren bidez banatzeko irizpidetik, esleitu beharreko puntuak interpolatzen diren zuzenaren malda nabarmen handiagoa baita zenbat eta baxuagoa izan eskaintza ekonomiko onena. Horrela saritzen da prezio txikiago bat eskaintzeko ahalegina; gainera, erabilitako formularen beste ezaugarri bat hauxe da: lizitatzaile desberdinek antzeko beherapenak eskaintzen badituzte, formulak antzeko puntuazioak esleitzen dizkie.

Mantentze zuzentzailearen laguntza teknikoko eskulanaren tarifaren prezioari eta irteera-prezioari dagokienez

Puntuak esleitzea proposatzen da, laguntza teknikoko eskulanaren tarifari eta irteera-prezioari dagokienez eskainitako balioekiko alderantziz proportzionala den puntu-banaketa baten bidez; hau da, eskulanaren tarifa handiagoei eta irteera-prezioari dagokienez, puntuazio txikiagoak izango dituzte.

Ibilgailuen antzinatasunaren araberako puntuak esleitzeko

Ibilgailuen antzinatasunaren araberako puntuak esleitzeko Kasu horretan, puntuak bi muturreko puntuen arteko interpolazio linealaren bidez esleituko dira; izan ere, antzinatasun txikienari puntuazio handiena emango zaio eta ibilgailuaren antzinatasun mugatzat jotzen diren muturreko puntuei ez zaie punturik emango; gainerako eskaintzei tarteko puntu kopuruak esleituko zaizkie (ibilgailuen batez besteko datua); horrela, lizitatzaileek kontratuaren xede den zerbitzua ibilgailu berriekin emateko egiten duten ahalegina saritzen da.

13. LIZITAZIOAREN PREZIOA KALKULATZEKO METODOA

Lizitazio prezioa kalkulatzeko, aintzat hartu da jarraian azaltzen den kostuen banaketa, kostua osatzen duten sail desberdinen garrantzia honako hau izanik: Zuzeneko langileen gastua: % 15; zeharkako langileen kostua: % 5; horniduren kostua: % 58; finantza gastua: % 2; ibilgetuaren amortizazioa: % 8; gastu orokorrak: % 6; mozkin industriala % 6; hau da, gastu orokorrak kostu osoaren % 81 dira, zeharkako gastuak % 7 eta beste gastu batzuk % 12.

Ibilgailu hidrolimpiatzaile baten alokairuko hornidurari eta urte baterako mantentze prebentiboari (BEZik gabe) buruzko kostuen kalkulua

Kostuak kontzeptuetan banakatuta	Kostuetako parte hartzearen ehunekoa				Kostuetako parte hartzea eurotan			
	Zuzenekoak	Zeharkakoak	Beste gastu posible batzuk		Zuzenekoak	Zeharkakoak	Beste gastu posible batzuk	
Langile gastuak (zuzeneko eskulana)	0,15				3.591,00	0,00	0	0
Langile gastuak (zeharkako eskulana)		0,05			0,00	1.197,00	0	0
Hornidurak	0,58				13.885,20	0,00	0	0
Finantza gastuak		0,02			0,00	478,80	0	0
Ibilgetuaren amortizazioa	0,08				1.915,20	0,00	0	0
Gastu orokorrak			0,06		0,00	0,00	1.436,40	0
Industria onura				0,06	0	0	0	1.436,40
GUZTIRA	0,81	0,07	0,06	0,06	19.391,40	1.675,80	1.436,40	1.436,40
	1,00				23.940,00			

14. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Zerbitzu kontratuaren helburua emisio kutsatzaileak murriztea da; hori dela eta, zerbitzua emateko, gehienez ere 120 hilabeteko antzinatasuna duten ibilgailuak erabiltzeko eskatzen da.